

05/2014 UDALEKO OSOKO BILKURA

2014KO MAIATZAREN 26AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Estanga Lasa

ZINEGOTZIAK:

Izaskun Jáuregui Saizar
Aitor Gurrutxaga Aranzasti
Aratz Luisa Urkola
Miren Josune Eizmendi Manterola
Mikel Ayerbe Gallurralde
Maialen San Sebastian Kortajarena
Kepa De la Iglesia Sánchez
M^a Carmen Egurza Salaberria

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

Anoeta Hiriko udaletxean, 2014ko maiatzaren 26an arratsaldeko seiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkate jaunaren Lehendakaritzapean eta alboan adierazitako zinegotziekin; eta Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea, Idazkari lanetan aritu naiz.

1.- 2014KO APIRILAREN 28AN OSPATURIKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2014ko apirilaren 28an ospaturiko akta irakurri eta aho batez onartuak izan dira.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2014KO APIRILAREN 16TIK MAIATZAREN 15A BITARTE, 196 ZENBAKITIK 261 ZENBAKIRA BIAK BARNE.

2014ko apirilaren 16tik maiatzaren 15a bitarte, 196 zenbakitik 261 zenbakira biak barne, bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, Korporakideek jakinaren gain geratuz.

3.- OBRA BAIMEN LIKIDAZIO BATI BAXA EMATEKO PROPOSAMENA.

2014ko maiatzaren 21eko alkate ebazpen bidez, Apeaderoaldea 1-2, etxebizitzako leihoak eta barruko pareta bat botatzeko 2012ko urriaren 29an emaniko obra baimenari dagokion zerga eta tasa likidazioari baxa eman zaio.

Kontutan izanik aipaturiko likidazioa 2012 ekitaldiko Udal Aurrekontuko likidazioaren obligazioetan sartuta dagoela.

Partaideek aho batez erabaki dute, 2012ko urriaren 29ko alkate ebazpen bidez onetsiriko ondorengo zerga ea tasari baxa ematea:

- Zerga: 358,00 eurokoa, 383/2012 eskubidearen aintzatespena
- Tasa: 250,23 eurokoa, 384/2012 eskubidearen aintzatespena

4.- ANOETAKO HERRI IKASTOLARI DIRU-EKARPENA.

Anoetako Herri Ikastolak hainbat agiri aurkeztu ditu: diru-laguntza eskatu du Ikastolako funtzionamendurako eta udalarena den eraikinaren mantenurako, eta 2012/13 ikasturteari dagokion gastu eta sarreraren likidazioa aurkeztu du, 2 urteko haurren gelari dagokiona hain zuzen ere. Aipaturako likidazioak 68.210,05 €-ko defizita adierazten du.

Idazkari kontu-hartzaileak txostena egin du eta bertan azaldu du, besteak beste, likidazio hau:

“ANOETAKO IKASTOLAKO 2012-2013 IKASTURTEKO LIKIDAZIOA”

2 URTEKO GELAKO GASTUAK

Pertsonal-gastuak	2012/13 ikasturtea	65.401,45
Ikastetxe osoko hornidura (20.725,80ren %10,52)	2012. urtea	2.180,35
Ikastola garbitzea (33.928,84ren %10,52)	2012. urtea	3.569,31
Irakasleen eta ikastetxearen gastuak		71.151,11
Maileguaren amortizazioa (16.964,48ren %33,33) bi hiru hileko	2013. urtea	5.654,26
Jangela: menuak + zainzaileak	2012/13 ikasturtea	9.888,00
GASTUAK GUZTIRA		86.693,37

SARRERAK

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza	23 ikasle	32.221,29
Kuotak (23 haur)	2012/13 ikasturtea	7.544,00
Jangelako kuotak (3 haur)		4.248,00
SARRERAK GUZTIRA		44.013,29
<u>DEFIZITA</u>	-	- 42.680,08

Alkateak adierazi du Ikastolak, 2013ko ekitaldiko maileguaren amortizazioari dagokion dokumentazioan, bi hiruhilekoren egiaztagiriak aurkeztu dituela, baina beste bi hiruhilekoren egiaztagiriak falta direla.

Gainera, Ikastolak aipatu dituen gastuen ordainagiriak ez dituzte erantsi.

Anoetako Udalak hitzeman zuen, 2011ko martxoaren 10eko plenoko akordio bidez, 2008ko urrian Ikastolak Laboral Kutxarekin gauzatutako maileguaren herena finantzatuko zuela. Mailegu hori "Anoetako Herri Ikastolaren berriztatzea" obra egiteko eskatu zen.

Eztabaida luze baten ondoren, alkateak idazkari kontu-hartzaileak egindako likidazioaren onarpena bozkatzeko eskatu du. Eta erantsi egingo zaio Ikastolak abonaturako ordainagiriei %33,33 aplikatu ondoren ateratzen den kopurua, eta udaletxean aurkeztu beharko dituzte, maileguaren amortizazio eta interes gisa. Era berean, Udalak ordaindu baino lehen, 2012/13 ikasturtean egindako eta aurkeztutako gastuak justifikatu beharko dituzte.

Diru-laguntza lau zati berdinetan ordainduko da, eta Foru Aldundiarengandik UFFF gisa jasotako sarreraren 4 aldiekin bat egingo dute, hau da, otsail, maiatz, abuztu eta azaroarekin. Kontuan izanda otsailari eta maiatzari dagozkion diru-sarrerak jaso dituela Udalak, Ikastolari egingo zaion lehen ordainketa bi zatiri dagokion kopuruagatik egingo da:

- Aldeko botoak: ZAZPI (Bildu talde politikoa)
- Aurkako botoak: BAT ERE EZ
- Abstentzioak: BI (EAJ talde politikoa)

Bozketaren emaitza ikusita, alkatearen proposamena onartu da.

5.- TXABOLEN ORDENANTZA

Lurzoru urbanizaezinean nekazal eraikien kanpoko itxura arauzako eta aisiako nekazaritza eta abeltzaintza jardueretarako txabolak eta bordak eraiki ahal izateko ordenantza

onesteko Udal arkitektu aholkularia den Raimundo Mendiburu Abadk jaunak eginiko proposamena ikusi ondoren.

Ondorengo txostenak ikusi ondoren:

- Udal Arkitektu aholkularia, Raimundo Mendiburu Abad jauna
- Udal AOT, Joana Apaolaza Perez andrea
- Udal Idazkari-Kontuhartzailea

Eztabaida luze baten ondoren, Alkate jaunak aurkezturiko Ordenantza bozketara eramandu ondorengo emaitza lortuz:

- Aldeko Botuak: ZAZPI (Bildu talde politikoarenak)
- Aurkako botoak: BAT ERE EZ
- Abstentzioak: BI (EAJ talde politikoarenak)

Bozketaren emaitza ikusirik, erabaki da:

Lehena.- Behin behineko izaeraz, Lurzoru urbanizaezinean nekazal eraikien kanpoko itxura arautzeko eta aisiako nekazaritza eta abeltzaintza jardueretarako txabolak eta bordak eraiki ahal izateko ordenantza onestea.

Bigarrena.- Aurreko atalean hartutako akordioa 30 laneguneko epeaz jendaurrean jartzea, berarekiko aurkez daitezkeen erreklamazio edo oharpenetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu ez bada, onarturiko erabakiak behin betiko izaera hartuko du, onespren berri baten beharrik izan gabe.

Laugarrena.- Aurreko atalean adierazten den behin betiko akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

6.- TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO PLATAFORMAK AURKEZTURIKO MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Bildu taldeko zinegotzia den Maialen San Sebastian Kortajarena andreak, “Tolosaldea Osasun Publikoaren alde”-ko plataformak aurkezturiko ondorengo mozioa irakurtzen du:

“Tolosaldea da eskualde bakarra Gestio Publikoko Eskualdeko Ospitale Publikoa ez daukana, nahiz eta horrelako ospitale bat edukitzeko behar beste biztanle izan, 65.000, hain zuzen ere.

Egoera horrek, Osasun eta Kontsumo Sailak berak zabalduzako foiletoren bidez aitortutako egoera horrek, ekarri du Tolosaldeak ezin izan duela urtetan baliatu osasun zerbitzuaz Gipuzkoako gainontzeko eskualdeen baldintza beretan.

Eskualdeko osasun arreta hobetzeko, Osasun eta Kontsumo Sailak proposatu zuen Tolosaldean berrantolatzea arreta espezializatua 2012ko urtarriletik aurrera. Horrek hauxe zekarren: espezialitateen anbulatorioetik

espezialistak desagertzea progesiboki; ospitaleratze orduan eskualdeko erreferentziazko ospitalea Asuintzio klinika izatea, ezin izango zuelarik Tolosaldeko jendeak Donostia ospitalera jo, berrantolaketa egin bitartean egin izan zuen bezalaxe, hala nahi izan zuenean; eta ospitale zerbitzu berriak martxan jarriko zituztela.

Osasun arretaren berrantolaketa hori pairatu ondoren, TOPA plataformak egindako Herri Ebaluazioaren arabera, hasiera hartan baino okerrago gaude orain: eskualde honetan inoiz ezagutu ez diren itxoin-zerrendak daude; kexa asko; espezialistak ez diren medikuek atenditzen gaituzte; batzuetan botikak eskatzen dizkigute ospitaleratuta dauzkagun familiartekoak tratatzeko, etab., hau da, jasotzen dugun osasun arreta geroz eta gehiago ari da urruntzen gainontzeko eskualdeetan ematen den zerbitzuetatik, nahiz eta guk haiek bezala ordaintzen dugun.

Gure iritziz, hau guztia dator eskualde honetan gertatzen ari den ospitale zerbitzuen ezkutuko pribatizaziotik, Arreta Espezializatuaren Berrantolaketa dela-eta. Gainera, Tolosaldean egiten ari direna Esperientzia Pilotu bat da, hain zuzen ere pribatizazio hau etorkizunean aurrera eramateko Euskal Herri osoan.

Horregatik guztiagatik Eusko Jaurlaritzako Osasun Batzordeara jo dugu, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan erabaki dute:

- Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari urtebeteko epean bermatzeko eskualdeko ospitale bat Tolosaldean, Osakidetza sare publikoaren barruan.
- Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari mantentzeko eta/edo berreskuratze 2011 arte espezialitateen anbulatorioan –Tolosalde osoari begira- funtzionatzen zuten espezialisten kontsultak.

Horregatik guztiagatik

DEI EGITEN DIEGU ORANGO UDALBATZA OSATZEN DUTEN ALDERDI GUZTIEI JARRERA BAT HAR DEZATEN HONAKO PUNTU HAUEN GAINEAN:

1. Mantentzea Espezialitateen Anbulatorioaren zerbitzu publikoa, 2011 arte funtzionatzen zuen moduan.
2. Tolosaldeak Eskualdeko Ospitale Publikoa edukitzea, Gipuzkoako gainontzeko eskualdeek duten moduan. Horretarako, Asuntzio klinika publikatu egin behar da, gai horretan inplikaturik dauden agenteekin Lan Mahai bat sortu eta gero.
3. Eusko Jaurlaritzari eskatzea geldiarazteko Euskal Herrian egiten ari diren pribatizatze ekintzak.
4. Eskatzea Espainiako Gobernuari eta Madrileko Kongresuari indargabetzeko 15/97 Legea, aukera ematen duena pribatizazio esperientzia hauek gauzatzeko.
5. Dei egitea herritar guztiei parte hartzera Tolosan, ekainaren 7an, egingo den manifestazioan, lan-mahai bat sortzearen alde”.

EAJ talde politikoko bozeramailea den Kepa De la Iglesias Sanchez jaunak adierazten du aurkeztu den mozioa ez du legalki aurrikusita dagoen prozedura jarraitu erregistroan sarreraik ez duelako.

Eztabaida baten ondoren, alkateak aipaturiko mozioa bozketara eraman du ondorengo emaitza lortuz:

- ALDEKO BOTUAK: **ZAZPI** (Bildu talde politikoa)
- AURKAKO BOTUAK: **BAT ERE EZ**
- ABSTENTZIOAK: **BI** (EAJ talde politikoa)

Bozketaren emaitza ikusi ondoren, “Tolosaldea Osasun Publikoaren alde”-ko plataformak aurkezturiko mozioa onesten da.

7.- ESAIT-EK AURKEZTURIKO MOZIOA ONESTEKO PROPOSAMEN.

Bildu taldeko zinegotzia den Mikel Ayerbe Gallurraldek, “Esait”-ek aurkezturiko ondorengo mozioa irakurtzen du:

“Zioen adierazpena.- EUOPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA (2007/C 303/01) (2007/C 303/01 21. artikuluan, 1 eta 2. puntuan dioena kontutan hartuta:

- 1. Bereizkeria oro debekatzen da, eta, bereziki, sexua, arraza, larru-kolorea, etnia- edo gizarte-jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijio edo pentsaerak, iritsi politiko edo beste edozein motatakoak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina edo sexu joera direla bide gauzatutakoa.*
- 2. Naziotasunaren ondoriozko bereizkeria oro debekatzen da, Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaren eta Europar Batasunaren Tratatuaren aplikazio-esparruan, tratatu horietako xedapen bereziak gorabehera.*

Gurean aldiz, nahiz eta gizartearen gehinegoak bat egin, Euskal selekzioa baztertua da nazioarteko txapelketetatik. Botere publikoek, naziotasun eskubidea bermatzeaz gain, gizartearen nahiari modu positiboan erantzun beharko lioke, eskura diren bitartekoak erabiliz.

Zentzu honetan, erakunde honen kompetentzia Euskal selekzioa baztertzea ekiditea ez bada ere, ekarpen xume bat egin lezake dagozkien instituzioei, udaletxe eta herri/hiri honen aldarria helarazi eta egungo bazterketa ezar ez dezaten. Eta bazterketa hau kirol eremu guztietan ematen bada ere, egun mahai gainean dagoen eztabaida kontuan hartuta, alegia futbola eta Eurokopa, honako mozioa aurkezten da.

Hau dela eta, honako mozioa aurkezten da.

Mozioaren Testua

Anoetako Udalak, Anoetako herritarren borondatearen ordezkari gisa, honako eskaria luzatzen du:

- 1.- Euskal selekzioak ofizialki nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehiatu dezan aldarrikatzen du.*
- 2.- Eta hori ahalbideratu ahal izateko, UDALAK, Espainiako Futbol Federazioari, Euskal Selekzioari ezarritako betoa kendu eta nazioarteko txapelketetan parte hartzea ahalbidera diezaiola eskatzen dio”.*

Eztabaida baten ondoren, alkateak aipaturiko mozioa bozketara eraman du ondorengo emaitza lortuz:

- ALDEKO BOTUAK: **ZAZPI** (Bildu talde politikoa)
- AURKAKO BOTUAK: **BAT ERE EZ**
- ABSTENTZIOAK: **BI** (EAJ talde politikoa)

Bozketaren emaitza ikusi ondoren, “Esait”-ek aurkezturiko mozioa onesten da.

8.- GALDE-ERREGUAK

Galde-Erreguen tartean EAJ taldeko bozeramailea dne Kepa De la Iglesia Sanchez jaunak ondorengo galderak egin ditu:

- 1.- Azken bolaran, grabazio sistemak ez du funtzionatzen eta zein den arrazoia galdetzen du.

Alkate jaunak erantzuten dio ordenagailuarekin arazoak daudela eta dagozkion konponketak egiten ari direla.

2.- 2014 urteko Aurrekontu Orokorra noizko eginda egongo den galdetzen du.

Alkate jaunak Idazkariari ematen dio hitza eta honek adierazi gastuen I kapitulua entregatua duela eta denbora nola hala ateratzen ari dela lehenbailehen amaitzeko.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.

